


2006ko JARDUERAK



0. Egoera orokorra

2006. urtea UDALBIDE Elkarlan Elkartearen finkatze, sendotzearen urtea izan da. Beste urte batez gehiago, ehunka elkarte eta erakunde izan dira UDALBIDEn laguntza eta elkarkidetzaren parte hartu dutenak.

Baina Euskadiko Legebiltzarrean, alderdi jakin batzuk abstenitu izanak, UDALBIDEntzak dirulaguntza murrizketa suposatzen zuen, ondorioz nahi bezainbeste ez ziren gauzatzerik izan UDALBIDEn helburuak.

1. Ekimenak

Euskal Herriko hainbat Udal, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzaz garatu dituzten ekimen guztiak, Udalek dituzten kompetentzi arloetan burutu dira.

UDALBIDE Elkarlan Elkartek ekimenak burutzeko zenbait programa propio jarri ditu martxan. Batez ere, Euskal Kultura –Euskara barne-, kirola eta beste arlo batzuetan.

Ekimenak, funtsean, baina ez denak, Nafarroan eta Iparraldean burutu dira, izan ere, Euskal Kulturak lurralde hauetan baitu egoerarik ahulena.

a) UDALBIDE HEDABIDEAK Programa (219.500 €)

Nafarroan:

▮ EITB NAFARROAN (100.000 €)

Programa honen helburua Nafarroa osoan EITBren presentzia bermatzea da.

Bi atal ditu:

Alde batetik, Nafarroako lurralde ezberdinetako udalerriek EITB modu egokian ikusteko interesa adierazten diote UDALBIDERi, horren ondorioz UDALBIDEREkin elkarlaneko hitzarmena sinatzen dute. EITBko teknikarien aholkularitzaz udalerriek antenak jartzeko tokiak egokitu dituzte, horren mantenimendua bermatuz.

Bestetik, UDALBIDE Elkarlan Elkartek EITBrekin sinatu duen Lankidetzak Hitzarmena. Honen bidez, EITBk bere zerbitzu teknikoa ziurtatzen du.

▮ EUSKALERRIA IRRATIA (40.000 €)

Iruña aldean aritzen den euskal irratia da, Betelu eta Sakana aldera iristen bada ere. Nola nahi, Nafarroako eskualderik euskaldunenak hartzen ditu.

Udalbidek laguntza luzatu dio Iruñeko Euskalerria Irratiari, Lizentzia ezaren ondorioak lausotzeko, irratiaren heldura plangintza bideratzeko eta ekipamendu teknikoak berritu eta hobetzeko. Plangintza erakargarri honekin lortu nahi da, Iruñerriko euskaldunentzat garrantzizkoa den zerbitzua landu, irradi bidezko komunikazioaren hobekuntza eta guztiok bat egiten dugun hiriburu honetako bizi giroan euskararen erabilpena dinamizatzea.

▮ **XALOA TELEBISTA** (22.500 €)

Xaloea Telebista, Baztan-Bidasoako herri telebistak, eskualdeko euskararen sustapen, garapen eta normalizazioan eragin handia dauka. Xaloea Kultur Elkartearen baitan, telebista bitartez euskararen trinkotze eta normalizazioa lortu nahi baita. Euskararen estima soziala berreskuratzeko eta euskaraz entzun eta hitz egiteko ohiturak indartzeko, euskara hutsez emititzen du programazio guztia. Halaber, eskualdeko garapen integralaren aldeko apustua egin du, bertako giza talde, jende eta elkarteei lagunduz eta elkar komunikaraziz.

Iparaldean:

▮ **COMEDIA PRODUCTION** (10.000 €)

Comedia Production, Iparraldeko multimedia eta ikus/entzunezko enpresa bat da. Telebista kateekin egiten du lan, batez ere, ETBrekin, Iparraldeko irudi eta erreportajeak eskainiz.

Laguntza, Iparraldeko kirol emanaldiak (TB) eskaintzeko emanen zaio. Honen bitartez, Iparraldeko kirolak promozionatu eta euskaldunen presentzia handitu nahi da.

▮ **EUSKAL IRRATIAK** (10.000 €)

Euskal Irratiak GURE IRRATIAK, IRULEGI IRRATIAK eta XIBERUKO BOTZA IRRATIAK osatzen dute. Hiruak, Iparraldeko hiru lurraldetakoak eta euskara hutsez emititzen duten bakarrak.

Hiru irratiaren eta dituzten bost egoitzen barne komunikazioa hobetzeko jaso dute laguntza. Hau da, barne komunikazioaren sarea antolatzeke, atari digitalaren sorkuntza, intranet/extranet eta IP telefono linea teknologiak aplikatuz.

▮ **EUSKAL MEDIA** (15.000 €)

Lapurdikoko entzun ikus enpresa bat da Euskal Media. Iparraldeko berriak zabaltzeko eta beste komunikabideak informazio horretaz baliatzeko, itelebista.com web gunea martxan jarri dute. Web gune horretan, Euskal Media produktorak grabatzen dituen berrien bideoak ikusgai egonen dira. Frantsesaz gain, informazio edukiak euskaraz ere egonen dira.

▮ **GURE IRRATIA** (12.000 €)

Egoitza Uztaritzeko Landagoien industrialdean kokatua dago eta 2006an sute baten ondorioz, Uztaritzeko estudio guztia hondatuta gelditu zen. Hortaz, material tekniko, informatibo guztia erosi behar izan zuten.

Aurrera pausu honi esker, Lapurdi mailako euskara hutsezko GURE IRRATIAk bere lana egiten segitzen ahalko du, hau da, lapurtarrei irrati zerbitzu orokorra euskaraz eskaintzen.

▮ **VASCOIMEDIA** (10.000 €)

Iparraldeko tokiko komunikabideak eta kazetariak biltzeko, informazioa elkarri helarazteko eta elkar laguntzeko sortutako elkarte da. Kasu honetan, www.euskobizia.com astekari elektronikoa sortzeko jaso dute. Web gune honek, Euskal Herriko eta euskal diasporako informazio kulturala eta soziala jasotzen du euskaraz eta frantsesez.

b) UDALBIDE HEZKUNTZA Programa (268.624)

Nafarroan:

▮ BAZTAN IKASTOLA (15.000 €)

Baztan Ikastolako haurrek, egun arte, Nafarroako Gobernuko garraio publikoa erabili izan dute, baina 2005eko irailetik aurrera Lekarotzeko garraioa kendu zitzaion. Horrek, Lekarotzeko haurrek ikastolaraino joateko modurik ez izatea ekarri du. Oztopo guztiak kontuan izanik eta aurre egin nahirik, Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak beraien garraio propioa antolatzen behartua izan da; modurik merkeena furgoneta bat erostea izan zen, baina Guraso Elkarteak dirurik ez zuenez maileguan hartu behar izan zuten.

Haurren garraiorako furgoneta, 2005eko azaroan erosi eta martxan jarri zuten, aurrekontua 18.600 € izan zen eta Udalbidek 15.000 € laguntza eman die.

▮ LABIAGA IKASTOLA (BERA) (40.000 €)

Labiaga Ikastolako egoera ekonomikoa oso larria da, D.B.H.ko etapa ez baitago legeztatua ezta kontzertatua ere. Proiektu honen helburua hezkuntza egokia eskaintzea da, materiala (mahiak, liburuak, teknologiako materiala eta abar) erosiz eta eraikinetan behar diren obra eta konponketak eginez.

▮ MATRIKULAZIO KANPAINA (24.000 €)

Lelo honekin, **ETORKIZUNERA KONEKTA EZAZU**, Euskara Kultur Elkargoarekin batera, **UDALBIDE Elkarlan Elkarteak** D Eredurako (euskara) matrikulazio kanpaina garatu zuen Nafarroan, 2006ko martxoa eta apirila bitarte, euskarri ezberdinetan: *prentsa, irratia eta markesinak*.

Argudioaren ildo nagusiak hauek izan dira:

- Kalitatezko heziketa.
- Gure kultura (gizarteratzea).
- Eleaniztasuna.
- Lan etorkizuna.

Iparraldean:

▮ LUMA ELKARTEA (5.000 €)

Proiektua 3 hilabetetik 4 urterako haurrentzako haurtzaindegi euskaldun bat sortzea eta mantentzea da. Laguntza jaso dute Ziburuko Luma haurtzaindegiaren azpiegituren hobekuntzarako (langileen formakuntza, txirrista, ispilua, diapositibak, etab.) lanetarako.

Garrantzi handia du, Baiona eta bere ingurunean umeei txikitatik euskaraz egitea, are gehiago, askok guraso erdaldunak dituztenean. Baita ere, euskal kulturarekin lotutako ekintzak burutzea.

▮ SARAKO HAUR ESKOLA (60.000 €)

Sarako Haur Eskolaren birmoldaketa lanetarako jaso dute laguntza: Gelako, komunak, logelak, jolastokia, jantokia, sukaldea, patioa eta kanpoko moldatze lanak.

▮ BIARRITZEKO AEK (2.000 €)

Biarritzeko AEKren Gau Eskolak, helduen euskalduntze eta alfabetatze lanean, gero eta ikasle gehiago dituenek, egoitza txiki, baliabiderik gabe eta zaharkituta gelditu zaie. Hortaz, laguntza jaso dute egoitza eraberrituaren hornidurararako.

▮ **COLLEGE-LYCEE ST. FRANÇOIS (3.000 €)**

Mauleko eskola honek, urteetan dihardu euskara eta Zuberoko kulturaren lanketan eta transmisioan. Ekintza kulturalen kariatara, "Jesus" Pastoral egiteko jaso dute laguntza. Pastoral honen emanaldietara mila pertsona baino gehiago gerturatu izan da, eta Maulen ez ezik, Ipar Euskal Herri osoan izan du sona.

Pastoralak egun, soilik Zuberoan mantentzen dira eta oso garrantzitsuak dira Pastoralen emanaldiak, jendea elkartzeaz gain, euskal kulturaren islara irudikatzen dutelako.

▮ **HEZKUNTEK (15.000 €)**

Gazteen formakuntza:

Iparraldean sortu den elkarte da HEZKUNTEK, xede jakin batekin: teknikari euskaldunak prestatzea. Elkarte, Iparraldean euskararen erabileraz eta ekonomiaren egoeraz kezkatu dauden enpresa eta hezkuntza arduradun zenbaitek osatu dute. 2006an, gazten goi mailako formazioa eta kualifikazioaren prestakuntzarako eman zaie laguntza.

Iparraldeko enpresak indartzen eta euskalduntzen diharduen elkarte honek, euskara teknikariak ezartzeaz gain, euskararen jarraipen zehatza egiten du. Horretarako, beharrezkoa da lanbide heziketak ikasten dabilzan gazteei, frantsesez ez ezik euskaraz ere formatzea. Gazteak Iparraldean bizitzen gelditzeko, bertako ekonomi orekatu baten aldeko apustua egin nahi da. Industria eta teknikariak garatu gabe, ekonomiak ezin duelako aurrera egin. Horregatik bada, Udalbidek laguntza eman die gazte hauek beren formazioa Hegoaldean euskaraz garatu dezaten.

▮ **UDALEKU ELKARTEA (10.000 €)**

Haurren eskolatik kanpo duten aisialdiak euskaraz izatea bultzatzeko **UDA-LEKU** elkarte izan du laguntzaile moduan. Elkarte hau euskal kultura bultzatuz, eskola haurrentzat aisialdiak euskaraz antolatzen dituen elkarte da, Iparraldean, baina Hegoaldekoekin trukaketa eta elkarrekiko egonaldiak eginaz. 9 tokitako haurren Biarritzera joan etorrirako ibilgailu bat erosteko laguntza eman zaio.

c) UDALBIDE KIROLA Programa (28.000 €)

Iparaldean:

▶ ELITE PILOTE BASQUE (10.000 €)

EPB, trinketeko eskuzko pilotako txapelketak antolatzen ditu. Helburuak: txapelketa berriak antolatzea eta beste txapelketa batzuetan parte hartzea; pilotarien formakuntza Euskal Herriko ligan eta Nafarroa eta Euskadiko federazioekin lan egitea; atzerrian, txapelketetan parte hartzea eta modalitate hau ezagutaraztea; Eta eliteko kirolariak sortzea.

2006ko laguntza, atzerrian txapelketak antolatzeko (San Francisco), elkarte eta trinketeko eskuzko pilota promozionatzeko komunikabideetan, eta Joko Berri espezialitatea garatzeko.

Nafarroan:

▶ EUSKAL FUTBOL CAMPUS (3.000 €)

Euskaraz burutu eta futboleko oinarritzen diren 8 eta 12 urte bitarteko neska mutikoentzat astebeteko hiru kanpaldi egiteko.

EUSKAL FUTBOL CAMPUS kanpaldi hauen bitartez gazte hauen artean euskararen erabilpena bultzatu nahi da, bidenabar futbolerako beharrezkoak diren konpetentziak garatuz, hastapeneko futboletik abiatuz eta lehiaketa alde batera utziz.

Batera ekimen honen bidez, antolatzaileek azaldu bezala, Euskal Herriko kulturaren zenbait alderdi bizi eta ezagutzeko aukera eskaintzen da, izan ere, kanpaldiotan herri kirolak, euskal pilota edota jarduera ezberdinak natur giroan egin baitira.

Euskal Herria osoan:

▮ EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNA (3.000 €)

Tolosan ospatu zen 3. Euskal Kirolaren Eguna burutzeko eman zaio laguntza. Euskal kirol ezberdinen ezagupena eta hastapena sustatzeko helburupean egiten da Euskal Kirolaren Eguna, hala nola, Euskal Kirolaren ordezkapena Euskal Federazio ezberdinei eta Euskal Kirol Federazioen Batasunari aitortzea.

Euskal Kirolaren Eguneko beste asmo handietako bat, Euskal Selektzioen nazioarteko ordezkaritza ofiziala aldarrikatzea da.

▮ ESAIT (6.000 €)

2006an jasotako laguntza, Zarautzen Euskal Selektzioaren aldeko eguna antolatzeko, Euskal Selektzioaren aldeko mendi martxa burutzeko eta Euskal Selektzioaren aldeko bizikleta igoera eta euskal festa ospatzeko eman zaie.

ESAIT, Euskal Herriko Selektzioa nazioartean ofiziala izan dadin sortu zen; batera, sortze bidean diren euskal federazioekin ekimenak antolatu eta federazio, kirolari, eragile eta alderdi politikoekin harremanak ezartzeko xedea dauka.

▮ EUSKARIANS RUGBY TALDEA (6.000 €)

Euskarians Rugby Taldea, errugbia Euskal Herriko lurralde guztietan zabaltzeko xedearekin jaio zen. Baita ere, nazioaren irudia zabaltzeko atzerrian kirol honen bitartez. Laguntza, atzerrian torneoak eta partidak jokatzeko eman zaie: Ulster, Hegoafrika... Eta Faduran antolatu zuten heziketa teknikoa burutzeko.

d) UDALBIDE EKONOMIA ETA LAN MUNDUA Programa (54.500 €)

Iparaldean:

HEMEN ELKARTEA (2.500 €)

Hemen Elkartearen zeregina: Lanpostuen sortzaile diren Ipar Euskal Herriko enpresak laguntzea, Euskal Herriaren irudi bereziaz baliatuz, eta Iparraldeko datu sozio ekonomikoak eskuratzea. Baita ere, gazteen lanbide heziketaz arduratzen da, Iparraldekoek eta Hegoaldekoek bi errealitate ekonomiakoak ezagutzeko eta bertan garatzeko.

Hiru hizkuntzetan egindako ekonomia elkargoko webgune bat eratzeko eta mugaz bi aldeetako lan trukaketarako eman zaie laguntza.

LABORANTZA GANBARA (50.000 €)

Egun, Iparraldean, herritarren erdia nekazaritzari loturiko lanetan aritzen da. Hain zuzen, nekazal mundua da han euskara eta euskal kulturaren praktika eta biziraupenaren oinarri. Gauzak horrela, EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARAren bitartez, nekazaritza herritarra eta jasangarria garatu nahi da, testuingurua bizirautearren. Ganbaratik nekazariari behar duten informazioa eta formazioa luzatuko zaie.

- Laborariak lagundu, txosten administratiboak jarraitzen eta laborantza politikak aplikatzen.
- Etxaldean transmisioa eta gazteen motibazioaren lanketa.
- Ekoizleen mozkinak handitzeko praktika iraunkorrak garatzea.
- Tokiko garapenerako aktore iraunkorra izatea.

Hau finkatuz gero, nekazaritza eta nekazarien etorkizuna bermatzen da, bidenabar, kalitatea ardatz, euskal mundua bermatuz.

Laguntza eman zaio, mintegi, azoka (Lurrama), argitarapenak... antolatzeko.

Nafarroan:

▮ **TAFALLAKO UDALA (2.000 €)**

Tafallako Udalako Euskara Zerbitzuarekin bi hitzarmen sinatu dira 2006an: Batetik, merkataritzako euskara bultzatzeko ekimena, eta bestetik, euskarazko kultur jarduerak burutzeko eta herri liburutegian euskarazko material osotuagoa izateko proiektua.

Euskara Merkataritzara proiektuarekin kanpainan inplikaturako merkatariei errotuluak euskalduntzeko dirulaguntza, segimendua, aholkuak... emanen zaie.

Epe ertainean paisaia linguistikoan eragina nabarituko da eta epe luzera, berriz, euskararen erabileran eragina izan dezan espero dute.

Normalizaziorako teoriak aplikazioaren mundura ekartzeko erabilera, ezagutza eta motibazioa elkarrekin landu beharreko osagaiak dira. Hizkuntza normalizaziorako plangintzek gizarte esparruak eta adin taldeak kontuan hartu behar dituzte eta hizkuntza normalizazioaren helburua lortzeko erakunde publiko eta gizarte erakundeen arteko lankidetzaren beharrezkoa da.

e) UDALBIDE KULTURA Programa (434.476 €)

Iparaldean:

▶ **AITZINDARIAK ALKARTEA (5.000 €)**

Gela baten erosketarako, Zuberoako 14 herritako dantzariak trebatzeko eta ikastaldiak eta ikuskizunak antolatzeko Iparraldeko eta Hegoaldeko dantza taldeekin. Honela, Xiberoko dantzak mantendu eta zabaldu nahi dira.

▶ **FOYER RURAL DENENA (AIZIRITZE) (1.000 €)**

Nafarroa Beheko elkarte honek, euskara eta euskal kultura zabaltzen dihardu 2003tik eskualde osoan. Kultur ekitaldiak egiteko eman zaio laguntza, horien artean: kontalariak eta kantaldia ekimenak.

▶ **HERRI SOINULARIAK (10.000 €)**

Iparraldeko lau festibal artistiko, EREIN deitua, antolatzeko eta emanaldiak eskaintzeko Euskal Herrian eta kanpoan:

- Xiru Festibala (Gotainen, Xiberua)
- Hartzaro Festibala (Uztaritzen, Lapurdi)
- Errobiko Festibala (Itsasun, Lapurdi)
- Gaita Eguna (Iparraldeko hiru eskualdetan)

Ezein medioetako sorkuntza artistikoaren bitartez, Euskal Herriko sorkuntza artistikoak zabaldu nahi da. Eta euskal artista gazteak bertan zein kanpoan, promozionatu.

▶ **HEBENTIK (6.000 €)**

Mauleko elkarte honek, batez ere, arte sorkuntza, transmisio eta trukaketa gunean dihardu. Artearen bitartez, euskal kultura eta euskararen lekua bermatzen ditu. Gainera, Zuberoako, Iparraldeko Hegoaldeko biztanle eta elkarteekin partaidetza aktiboa bultzatzen du.

2006ko laguntza *Oierkoren Trajeria* ikuskizuna gauzatzeko eman zaie. (Izarra-Urkabuztaiz/Maule), Mauleko eta Arabako herritarrak elkartzeko xedearekin. Hizkuntza eta arte trukaketa emanez.

▮ **HIRUKI Elkarte** (4.000 €)

Baionako euskalgintza antolatzeke: Sagarno eguna, Olentzero Baionan, Baionan kantuz eta Ikusgarriak.

HIRUKI elkartearen helburu nagusia hauke da: euskal kulturaren gizarteratzea elkarte osatzen duten Gaur Eskola, Baionako bi ikastolak eta Gure Irratiaren ahalbideak eta esperientziak bilduz.

▮ **MAITE DUGULAKO** (1.000 €)

MAITE DUGULAKO Elkartearen helburu nagusiak hauek dira: Euskara dakitenak eta ikasten ari direnak harremanetan jartzea antzerkigintzaren bitartez, bai eta euskararen erabilpena eta euskarazko antzerki sorkuntza bultzatzea. 2006an antzerkiari euskaldunen formakuntzak burutu dituzte.

Nafarroan:

▮ **ALTSASUKO KIMA TALDEA** (800 €)

Elkarte honek, Altsasuko herrian euskararen normalizazioa lortu nahi du, horretarako hainbat ekintza gauzatzen ditu. Kasu honetan, etorkinak euskarara hurbiltzeko kanpaina abiarazi dute, tartean etorkinentzako euskal hiztegi bat kaleratuz.

▮ **ARI GIDARI** (1.100 €)

Iparralde/Hegoaldeko harremanak estutzeko. Horretarako hainbat irtenaldi antolatzen dituzte, Iparraldeko gazteek, umeek eta familiak Hegoaldea bisitatu, ezagutu eta harremanak sor ditzaten.

▮ **ASOCIACIÓN AMIGOS DEL OLENTZERO (IRUÑA)** (6.000 €)

Olentzeroren Lagunak Elkarteak 2006eko Iruñeko Olentzeroaren desfilea burutu ahal izateko, San Antonioko Olentzeroren 50, urteurrena ospatzeko eta Olentzero Iruña izeneko aldizkariaren argitalpenerako laguntza jaso du UDALBIDErerengandik.

▮ **BERTIZ PARTZUERGO TURISTIKOA (3.000 €)**

Bidasoaldeko 9. Nazioarteko Zinemaldia egiteko. Zine ekitaldi garrantzitsu honen bitartez, eskualdeko herritarrak zinera hurbildu eta euskal zuzendari, aktore eta produkzioak babestu eta zabaldu nahi da.

▮ **ERRIBERA EGUNA (1.000 €)**

ERRIBERA EGUNA Kultur Elkartearen helburu nagusia urtero ERRIBERA EGUNA ospatzea da. Jaialdi honen bidez Nafarroako eskualde honetako baloreak sustatu, Nafarroa barruan nahiz herrialde honetatik kanpo bertako ezaugarriak zabaldu eta Euskal Herriko beste herrialdeetatik jaialdira datozenen arteko harremanak sendotu nahi dira. 2006ko Erribera Eguna Castejonen ospatu zuten ekainaren 10 eta 11an.

▮ **EUSKARA KULTUR ELKARGOA (60.000 €)**

Urteko jarduera. Euskara Kultur Elkargoak Nafarroan jarduten du 1998tik, euskara eta euskal kultura bultzatzen eta defendatzen. Urteko jardueren barne, mahai-inguruak, foroak, hitzaldiak; euskararen inguruko txostenak, erakusketak, liburu eta komunikazio argitalpenak; aurrematrikulazio kanpainak... burutzen ditu. Horretaz gain, Artekaria zerbitzu juridikoa eta Nafarroan euskara eta euskal kulturarekiko egiten denaz - eta egiten ez denaz - informazio zehatz eta mugatua emateko tresna interaktibo eta dinamikoa den Sarea tresna daukate. Nafarroan ez ezik, nazioartean ere hemengo egoeraren berri izateko.

▮ **IRUJO ETXEA (9.000 €)**

Elkarte honen helburu nagusia, Lizarrako euskal kultura eta historia berreskuratzeko asmoz eta On Manuel Irujoren pausoei jarraipena emanaz, herriko nortasun ezaugarriak jorratzea da, Memoria Historikoan oinarrituz. On Manuel Irujo saria eta ekintza kultural asko antolatzen dituzte urtean zehar. 2006an gainera, Manuel de Irujo-ren mendeurrena ospatu dute.

On Manuelen 25.urteurrenean, Lizarrako herriaren nortasunaren ikurrak eta balore demokratikoak, errepublikarekiko fideltasunaz hil arte defendatu zituen politiko eta humanista handiaren bizitza gogoratuz ale berezia emanen du argitara.

▮ **ERRONKARI BAILARAKO BATZAR NAGUSIA (10.000 €)**

Erronkari eta **Zaraitzuko Euskara Zerbitzuak** aitzinera ateratzen lagundu du UDALBIDEk. Erronkari eta Zaraitzuko Iboxetan premiazkoa da euskara teknikari berri bat kontratatzea, baina bi ibarretako Batzorde Nagusia jasaten ari diren krisi ekonomikoa eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza murrizketak direla medio, zail egiten zaie euskara zerbitzuak burutzeko behar den teknikaria finantziatzeko bidea topatzea. Arazo finantziarioari eta Nafarroako Gobernuak utzitako hutsune ekonomikoari irtenbide topatzeko asmoz, Udalbide Elkarlan Elkarteak 20.000 € Lankidetzak Hitzarmena sinatu du Zaraitzuko Iboxeko Batzar Nagusia eta Erronkaribarreko Batzar Nagusiarekin.

▮ **ZARAITZU BAILARAKO BATZAR NAGUSIA (10.000 €)**

Erronkari eta **Zaraitzuko Euskara Zerbitzuak** aitzinera ateratzen lagundu du UDALBIDEk. Erronkari eta Zaraitzuko Iboxetan premiazkoa da euskara teknikari berri bat kontratatzea, baina bi ibarretako Batzorde Nagusia jasaten ari diren krisi ekonomikoa eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza murrizketak direla medio, zail egiten zaie euskara zerbitzuak burutzeko behar den teknikaria finantziatzeko bidea topatzea. Arazo finantziarioari eta Nafarroako Gobernuak utzitako hutsune ekonomikoari irtenbide topatzeko asmoz, Udalbide Elkarlan Elkarteak 20.000 € Lankidetzak Hitzarmena sinatu du Zaraitzuko Iboxeko Batzar Nagusia eta Erronkaribarreko Batzar Nagusiarekin.

▮ **KARRIKIRI ELKARTEA (6.000 €)**

Iruñeko **Karrikiri Kultur Elkartearen** helburu nagusia, Iruñeko euskal komunitatea tinkotzea eta kaleetan euskararen erabilera areagotzea da.

Karrikiri Elkartearen 2006.urteko jardueren artean, autobus irteerak, *karrika gurea da* proiektua, lan poltsa, pisukide zerbitzua eta errolda zerbitzua zeuden bertze hainbat gauzen artean.

▮ **KEBENKO KULTUR ELKARTEA (20.000 €)**

Erronkariko Ibarren euskara eta euskal kulturaren alde lan egiteko sortua den Kebenko Kultur Elkartearen jardueren artean, Erronkaribarreko Uskararen Eguna, Espartinen martxa, Ekibaxak "Uskara gure sustraia" festa, Udazkeneko kultur zikloa, Musikaren eguna, Zuberoarekin elkar harremanak eta Ekialde aldizkaria daude.

Ekialde, Pirinioetako aldizkari euskalduna erronka handia izan da. Kebenko ez ezik, Ekialdeko beste bailara eta herrietako Kultur Elkarteak batu dira. Euskal Herriko Ekialdean bizi diren euskaldunen arteko erlazioak eta elkarren arteko harremanak eta lankidetzak ahalbidetu nahi dira aldizkariaren bitartez, amankomuneko hizkuntza eta ondarea ardatz hartuz. Bestalde, Nafarroa Ekialdean eta Zuberoan euskara behar bezain lagundua ez dagoen eremuan, euskara eta euskal kulturaren sustapenean eragina edukiko du. Ekialdeko euskalkiak erabiltzeko eta aditzera eramateko baliagarri izango delarik.

▮ **KULKI S.C. (600 €)**

Añorbe eta Carcar-en Euskararen Eguna antolatzeko. Carcar, Añorbe, Zirauki eta Mañeruko eskola umeak, euskaraz eta euskal kulturarekin jai giroan gozatzeko aukera izanen dute.

▮ **LESAKAKO UDALA (3.100 €)**

Olentzero-Lesaka-Euskal Herria (liburu etnografiko eta historikoaren argitarapena) eta Artzain Eguna ospatzea Lesakan, Antzain Mundua Elkartearen baitan, urtero Ameriketara ibilitako euskal artzainen topaketak egitea du ardatz.

▮ **LIZARRAKO UDALA (2.000 €)**

Lizarrako Udalak euskarazko zenbait kultur jarduerak antolatzeko eta helduen irakaskuntza sustatzeko jaso du laguntza.

▮ **MENDI BEHERA ELKARTEA (OIBAR) (20.000 €)**

Oibarko Energia Bereiztagarrien gelaren euskaratzearen 1. faseko lanak. Energia Berriztagarriaren helburuak, energiaren isurketei eta kontsumoei loturik doazen ingurumen arazoaren difusioa; aurrezpen

energian eta energia berriztagarrian kontzientziaztea; eta jendearen jarrera aldatzea dira.

Horretarako Gelan, informazioa, komunikazioa, ingurumen hezkuntza eta giza eskuharmena eskaintzen dituzte.

▮ **ORREAGA FUNDAZIOA (3.000 €)**

- Hitzaldiak: *Francisco de Xabier y la conquista de Navarra; Los Jaso defensores de la independencia de Navarra.*
- Euskal Kantutegien (Aho batez kantari) liburuxken argitalpena eta banaketa.
- *Francisco de Javier, vasco de linaje y navarro de nación* aldizkaria.
- *Francisco de Javier, vasco de linaje y navarro de nación* erakusketa.
- Abuztuaren 15ean, Orreagako batailaren goratarrea.
- Abenduaren 3an, *Nafarren Biltzarra* ospakizuna Iruñan.

▮ **SUNBILLAKO ARTZAIK ELKARTEA (2.500 €)**

Sunbildarrak Ameriketara (1898-1998) liburuaren argitarapena. Sunbillatik Ameriketara 100 urte horietan joandako artzainei buruzko liburua. Herriko liburu etnografiko eta historikoa, inondik inora.

▮ **TAFALLAKO DANTZA TALDEA (1.000 €)**

40 urteko dantza talde honek, eskualdeko dantzak plazaratzeaz gain, dantza berri batzuk sortu ditu eta Euskal Herri guztian eskaintzen dituzte emanaldiak. 40. urteurrena egun oso berezi batekin ospatu zuten: berrogei urte hauetan elkarrean ibili diren dantzari eta musikariei omenaldi handi bat egin baitzitzaien. Bestalde, denen artean fundazio bat sortu nahi dute urte guztietako materialak guztia bildu eta gordetzeko.

▮ **TAFALLAKO UDALA (2.000 €)**

Tafallako Udalako Euskara Zerbitzuarekin bi hitzarmen sinatu dira 2006an: Batetik, merkataritzako euskara bultzatzeko ekimena, eta bestetik, euskarazko kultur jarduerak burutzeko eta herri liburutegian euskarazko material osotuagoa izateko proiektua.

▮ **TUTERAKO NAFARREN ETXEA ELKARTEA (6.000 €)**

Hitzaldiak egiteko. TUTERAKO NAFARREN ETXEA Elkarteak kultur dinamizatzailea da bere eskualde osoan. Nagusiki, Nafarroaren historia, soziologia, ekonomia, politika eta kulturaren inguruko ekimen kulturalak antolatzea du xede, betiere Euskal Herria testuingurutzat harturik.

Udazkenari begira antolaturiko hitzaldiek itzelezko sona eta arrakasta eduki dute. *Nafarroako memori historikoa: II. Errepublika eta Gerra Zibilean nazionalista, sozialista eta Errepublikarren arteko lankidetzaren izenburuko hitzaldiak*, hain zuzen.

Euskal Herria osoan:

▮ **JOSE M^a JIMENO JURÍOREN BILDUMA (150.000)**

UDALBIDE Elkarlan Elkarteak, Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela argitaletxeak, José M^a Jimeno Jurio, Artaxoako historialariaren *LAN GUZTIAK bilduma* argitaratuko dute.

Bi hilabetero argitaratuko dira, 62 liburuki osatu arte. Lana Roldan Jimeno Arangurenek zuzendu du, David Mariezkurrenarekin batera eta Patxi Salaberriren laguntzaz.

Bilduma liburu dendetan erosi ahal izateaz gain, harpidetzaren bitartez eskuratu daiteke.

▮ **UDALEKUAK (46.000)**

UDALBIDE Elkarlan Elkartearen programa guztiek bi ezaugarri izanen dituzte: batetik, harremanetarako hizkuntza euskara izanen da eta, bestetik, lurralde arteko taldeak euskal lurralde guztietako pertsonen bidez osatuko dira. Programa horien helburua bikoitza izanen da: batetik, euskaldunen arteko harremana eta ezagutza eta, bestetik, euskaraz mintzatzeko moduak bateratzea, euskalkien esperimendazioa. Horrez gain, balore batzuk zabalduko

dira, gure gazteak berdintasunean, errespetuan eta justizia sozialean hezteko, bai eta kontzientzia historikoaren garapena ere.

Euskal gazteen arteko lan programak barne hartuko ditu:

- Asteburuko kanpaldiak eta udalekuak.
- AUZOLANDEGIAK
- Lurraldeetako gazteen arteko TRUKAKETAK
- ASTEBURURAKO ANIMAZIO PROGRAMAK...

UDALBIDE Elkarlan Elkartearentzat programa horiek euskal gazteen arteko ezagutza eta harremanetarako lanabesa dira, egokiak hizkuntza trukaketarako eta elkarren arteko ez-ezagutzaren mugak gainditzeko bidea. Hauek bezalako baloreak garatu eta sustatuko dira: bakea, pentsamendu askatasuna, euskal kulturaren partaide izatearen sentimendua, Euskal Herriko kultur ondarearen ezagutzan sakontzea, erantzukizuna, euskal nortasuna eta kultura, besteenganako elkartasuna, bakea giza justiziaren adierazpen gisa, eleaniztasuna, kontzientzia historikoa, sormena, besteenganako errespetua eta naturarekiko harreman orekatua.

Lurralde guztietako aisialdiko monitore gazteentzat prestakuntza lana egingen da eta haiek, aldi berean, haurrak prestatuko dituzte, beraiek antolatutako jardueren bidez.

Euskal lurralde guztietako hainbat adinetako gazteen arteko harreman sarea ezartzera bideratutako proiektua egingen dugu, elkarren arteko ezagutza sakontzeko, bai eta UDALBIDE Elkarlan Elkartearen jarduketa-esparruko jarduera guztiak bultzatzeko ere.

1. Monitoreen ikastaroa
2. Udalekuak

■ **ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA (18.000)**

Euskal arkeologia ikastaroak burutzeko:

- Euskaraz eta Euskal Herriko lurralde guztietan jarduera praktikoa osagarriak izango dituen lehen arkeologia ikastaroak antolatzeko.
- Euskal nortasun eta kulturaren garrantzia historikoa duen Amaiurko gazteluan indusketa lanak burutzeko.
- Espainiako Gerra Zibilean Hego Euskal Herrian fusilatu zituztenen oroimen historikoa berreskuratzea.

f) UDALBIDE DIASPORA Programa (57.000 €)

a. BARTZELONAKO EUSKAL ETXEA (3.000 €)

Bartzelonako Euskal Etxeak antolatzen dituen ekintzek izen propioa dute eta Kataluniako ekintza-kulturalen artean bere lekua hartu dute. Horren adibide ditugu, esaterako, Euskal Musika eta Dantzak uztartzen dituen **“Euskal Herria Sona”** jaialdia, zeinetan udazkeneko Euskal Herriko proposamen onenak gerturatzeko dituztena. Baita ere, berebiziko izena hartzen ari diren **“Literaldia”** eta **“Zinemaldia”**.

b. BASQUE HERITAGE (54.000 €)

Udalbide eta Basque Heritageek Euskal Diasporako ekimenean aurrera jarraitzeko asmoz, hitzarmen sinaketa burutu dute. Basque Heritageren web orria: www.basqueheritage.com eta bere barruan dagoen gaztelerazko www.euskalkultura.com euskal diasporako informazioko web orririk garrantzitsuenetarikoa eta gehien bisitatuenetarikoa da.

g) UDALBIDE HURBILTZEN Programa (10.350 €)

HURBILTZEN egitasmo honen helburu nagusia zera da: Euskal Herriko udalen arteko senidetze akordioak bultzatu, euskal hiritarren arteko harremanak indartu ahal izateko.

Udalen arteko senidetze akordioak duela zenbait hamarkadatik hona garatu den praktika ezagun bat dugu. Udal askok, dagoeneko esperientzia luze eta aberasgarria dute arlo honetan.

UDALBIDEK, haratago doa, beste pauso bat emanaz: Hirunakako senidetzeak bultzatzen saiatzen ari gara: Iparraldeko bat, Nafarroako bat, eta Euskal Autonomi Erkidegoko beste bat. Akordioak udalek bultzatzen dituzte. Halaber, horiek izanen dira bitartekari lana egingen dutenak. Nolanahi ere, hiritarrak dira protagonista nagusiak, euren elkarte eta kultur edo kirol taldeen bitartez.

Gehien errepikatzen diren elkar-lan gaiak hauek dira: euskara, hezkuntza, gazteria, hirugarren adina, udal kudeaketa, kirola, turismoa, aisia, gastronomia, artisautza, musika, dantza, margolanak eta eskulangintza. Gai anitz daude eta bata edo bestea hautatu, parte hartzen duten udalerrien interes eta borondatearen baitan egonen da.

HURBILTZEN egitasmoaren bitartez finantziario laguntzaz gain, aholkularitza profesionala eskaintzen diegu udal guztiei, senidetze programa hau garatzeko, bai metodologiari, bai informazioari, bai esperientzia desberdinen bateratze lanari dagokionez. Halaber, bertze diru iturriak lortzeko ere, laguntza eskaintzen da.

2.006ean gauzatu ziren proiektuak hauek izan dira:

- **Angelu-Getxo:** Olinpiadak.
- **Lizarra-Antzuola:** Alfontso Ugarteren musikariaren omenezko ekitaldiak.
- **Azpeitia-Hazparne:** Anaikidetza.
- **Iruña-Baiona:** Olentzeroa

2006. URTEAN EMANDAKO LAGUNTZAK: 1.032.466 euro

IPARRALDE	341.500 €	EUSKAL HERRI Osoa	194.174 €
Hezkuntza	195.000	Kirola	15.000
✓ LUMA ELKARTEA	5.000	✓ Euskal Kirol Federazioen Batasuna (EKFB)	3.000
✓ SARAKO Haur Eskola	60.000	✓ ESAIT	6.000
✓ Biarritzeko AEK	2.000	✓ EUSKARIANS Rugby Taldea	6.000
✓ College-Lyceé St. François	3.000	Kultura	179.174
✓ HEZKUNTEK	15.000	✓ JIMENO JURIO <i>Obras Completas</i>	144.000
✓ UDALEKU EIk.	10.000	✓ UDALEKUAK (monitoreak)	17.174
Komunikabideak	57.000	✓ ARANZADI Zientzia Elkarte	18.000
✓ COMEDIA PRODUCTION	10.000		
✓ GURE IRRATIA	12.000		
✓ EUSKAL Irratiak	10.000		
✓ EUSKAL MEDIA	15.000		
✓ VASCOIMEDIA	10.000		
Kultura	27.000		
✓ AINTZINDARIAK Elkarte	5.000		
✓ FOYER RURAL Denena Elk.	1.000		
✓ HERRI SOINULARIAK	10.000		
✓ HEBENTIK EIk.	6.000		
✓ HIRUKI EIk.	4.000		
		HURBILTZEN	10.350 €

✓ MAITE DUGULAKO Elk.	1.000
Ekonomia	52.500
✓ HEMEN Elkartea	2.500
✓ LABORANTZA GANBARA	50.000
Kirola	10.000
✓ Elite Pilote Basque	10.000

DIASPORA	57.000 €
Komunikabideak	
✓ BASQUE HERITAGE	54.000
Kultura	
✓ Bartzelonako EUSKAL ETXEA	3.000

NAFARROA	429.442 €
Hezkuntza	78.376
✓ BAZTAN Ikastola	15.000
✓ LABIAGA Ikastola (Bera)	40.000
✓ Matrikulazio Kanpaina 2006	23.376
Komunikabideak	178.966
✓ EUSKALERRIA Irratia	40.000
✓ EITB Nafarroan	116.496
✓ XALOA Telebista	22.500
Kultura	167.100
✓ Euskara Kultur Elkargoa (EKE)	60.000
✓ IRUJO ETXEA Elkartea	9.000

✓ ERRIBERA EGUNA	1.000
✓ OLENTZEROREN Lagunak Elk.	6.000
✓ KIMA Taldea (Altsasu)	800
✓ ARI GIDARI	1.100
✓ Tuterako NAFARREN ETXEA	6.000
✓ BERTIZ Partzuergo Turistikoa	3.000
✓ ERRONKARI Bailarako Batzar Nagusia	10.000
✓ ZARAITZU Bailarako Batzar Nagusia	10.000
✓ KARRIKIRI Elkartea	6.000
✓ KEBENKO Kultur Elkartea	20.000
✓ KULKI S.C.	600
✓ LESAKAko Udala	3.100
✓ LIZARRAko Udala	2.000
✓ MENDI BEHERA Elk.	20.000
✓ ORREAGA Fundazioa	3.000
✓ ARTZAIK Elkartea (Sunbilla)	2.500
✓ TAFALLAko DANTZA Taldea	1.000
✓ TAFALLAko Udala	2.000

Ekonomia	
✓ TAFALLAko Udala	2.000
Kirola	
✓ Euskal Futbol Campus	3.000